



BARREN

TOKIKOM

Planktonaren txikian azterketa handia



ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

2018-2019

Zatoz!

2018-19 ikasturterako DBHko aurrematrikula

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

Gurasoentzako bilera:

Arreiturreko liburutegian urtarrilaren 31n, arratsaldeko 18:00etan



Elgoibar BHI

www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI

Arreiturre 2

Tel.: 943 740 387

E-posta: 013431aa@teokuntza.net



elgoibarko
herri eskola

Kaleraza, 8

Tel.: 943 740 870

E-posta: 012777aa@teokuntza.net



Barren 25 urte

Bost aurpegi berri


rudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela dio esaerak. BARRENen hitzak milioika idatzi dira urte hauetan guztietan eta irudiak ere pila bat ipini dira aldizkariko orrietan. Baina argazki eta marrazkiez gain, hori guztia batzen duen irudi orokorrek ere izan du zeresanik. Makina bat aldaketa egin ditugu lehenengotik azkenera bitartean.



Zuri-beltzak kolore arrosa eta gorria izan zituen lagun hasierako etapan azalean, nahiz eta hainbatean behin koloretako argazkiak ere ipini. Ezker aldean elgoiBARREN izena letra handiekin beltzez jarri eta barrurako sarreraren ondoren argazkiak, koloregabeak.



1996an egin zuten BARRENek lehen diseinu aldaketa eta BARREN izena hutsik hartzera pasatu zen. Irakurleengana modu arinagoan iristeko, argazki gehiago, espazio zuria eta tipografia berria erabiltzen hasi ginen. Argazkiaren izena bera ezkerretik goiko aldera pasatzeaz gain letra mota ere aldatu genuen eta irakurleek barrurako pausua eman zezaten ezker aldean barruko hainbat gairen aurrerapena egiten hasi ginen.



Itxura berbera mantendu baino herritarrak erakartzeko beste pausu bat eman eta berriz ere itxura aldatu gendion BARRENi. Opor osteko berrikuntza izan zen, 2000. urteko irailean. Goi parteko letrek tipografia ezberdina hartu zuten eta izenari lagunduz orduko aldaketan berriz ere hainbat atalen aipamena egiten genuen goiko aldean, azpian berriz esaera zahar edo esaldi bereziren bat sartzeko tartea lagata. Barru aldean argazkiak zuri-beltzean mantendu arren, atalen izenei hainbat izenburu edo irudi txiki mustarda kolorea eman zitzaizkien pixka bat bizitzeko.



Denborarekin azala arintzea izan da itxura aldaketaren beste asmoetariko bat. Horretarako, 2005ean BARREN letra handiz goiko aldean ikustetik B hizkia aldizkariaren irudi izatera pasatu zen goian, baina ezkerretara. Eta behe aldeko esaeren partez barruko atalen aurrerapena egiten genuen. Barruko kolore mustarda laranja ordezkatu zuten. Barruko argazkiek, baina, zuri-beltzak izaten jarraitu zuten.



2008an ezker aldeko B hizki zuri handia lauki beltz baten barrura pasatu genuen eta gainontzeko azala koloretako argazkiei eman genien. Barruko tonuak berdez izatera pasatu ziren eta barruko argazkiek ere kolorea hartu zuten.



Azken diseinu aldaketa 2015ean egin da. Azaleko B hizki minuskula izatera pasatu zen, BARRENen logotipo berria izatera pasaz eta irudi biribilagoa emanez. Barruan atalen araberako koloreak aldatzen dira egun eta koloretako argazkiei gero eta tarte handiagoa ematen saiatzen gara.



ANDER SORALUZE

Informatikaria

Adimena

Eta zer esan nahi du gailu bat adimenduna izateak? Ba, gaur egun, ezer gutxi. Gailuon ezaugarrirei erreparatuz, asko jota, internetera lotura dutela esan daiteke. Ze adimen du, ba, smartphone batek? Ordenagailu bat besterik ez da, poltsikoan eramateko moldatua, baina eskatzen zaizkion programak exekutatu besterik egiten ez duena. Beste horrenbeste erlojuak eta beste edozeinek.

“Gure gizarte honek adimendun hitza kontsumoa areagotzeko darabil gehienbat”

Egia esateko, adimen artifiziala zehazki zer den ez dago bat ere argi. Berez, makina batek izaki adimendunok dugun gaitasun kognitiboa erakus-

ten duenean izango litzateke. Oso definizio irekia, nire ustez. Orain dela gutxira arte adimena behar zutela esaten zen teknologia asko, gaur egun teknologia arrunt kontsideratzen dugu (ikusmen artifiziala, adibidez). Hortaz, gailuok adimendunak ziren ala ez?

Adimen artifiziala informatikaren arlo oso garrantzitsua bada ere (eta hemendik aurrera protagonismo handia izango duelakoan nago), gure gizarte honek adimendun hitza kontsumoa areagotzeko darabil gehienbat. Nola erosiko dut telebista arrunt bat, piska bat gehiago ordainduz telebista adimenduna eskura badezaket?

Lagunak esan zidanez, erosi zuen telebista adimentsuagoa zen bere aita-amaginarrebarena baino! Ez ditut eza gutzen (ez telebista ezta jabeak ere), baina ez dut uste inork/ezerk, youtube exekutatzeko gaitasunagatik, adimendun deitzea merezi duenik.

Aurreko batean, lagun batek bere emaztearen gurasoentzat telebista berri bat erosteko enkaragua jaso zuela kontatu zidan, teknologia berrietan aditua zelakoan. Hasi zen eskaintzari begira eta, nahi eta nahi ez, erosiko zuen telebista “adimenduna” izango zela konturatu zen, ez baitzegoen besterik. Smart TV bat, alegia.

Telebistei ez ezik, gaur egun edozein gailuri jartzen zaio adimendun abizena: telefonoak, erlojuak, hozkailuak, bozgorailuak, termostatoak, kamerak, autoak...



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkadi Leharren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazita koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

EUSKARRA
elgoibar
KOINAK

LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ **ERRAUSTEGIKO GOI-TENTSIOKO LINEAREN AURKAKO MENDI-MARTXA**

Zubietako erraustegiari zerbitzua emateko eraiki nahi duten goi-tentsioko linearen aurkako mendi-martxara deitu du larunbaterako Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Ordua ere zehaztu dute: 11:30ean Azkorten, eta 13:00etan, Lasarte-Oriako Okendo Plazan, mendian ibiltzeko aukerarik ez dutenentzat.

Proiektuaren arabera, linea Hernani eta Urnietaren artean hasi, eta gutxi gorabehera, Azkorteko ermitan barrena erraustegiraino iritsiko da. Zubieta, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnietako lurak igaroko ditu. Ingurumen eragina handia izango da, batez ere nekazari lurak eta basoak zeharkatuko dituelako. Linea berriak 132 kilovoltetako potentzia izango du, eta, eskusiboki erraustegiari zerbitzu emateko eraikiko dute.

Linea Artzabaletako (Zubieta) eremutik irtengo da eta 5.422 metroko luzera izango du, A-15 autobide ondoraino, Urnieta eta Hernani arteko mugatik gertu. Guztira, 21 euskarri berri jarriko dituzte, beti ere proiektu horren arabera, eta bakoitzak 50 metro koadroko lur eremua hartuko du. Euskarrien altura 30 eta 36 metro bitartekoa izango da. Linea osoan, batez besteko 40 metroko zabaleran, zuhaitzak ebakiko dituzte, eta ezin izango da berririk landatu.

Une honetan proiektua Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren Ingurumen Eraginaren Deklarazioaren zain dago. Behin tramite hori gaindituta, deklarazioa publiko egingo dute eta helegiteak jartzeko tartea zabalduko da. Ondoren, Industria Sailera joango litzateke proiektua eta hark baimendu ostean, lur desjabetzeak eta eraikuntza lanak hasiko lituzkete.

Larunbatean ni mendi-martxara noa, eta zuek?

A.I.Z.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



VII. URTEURRENA

Fernando Azpiazu Uribetxeberria

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak



Historiaurreko Errepliken Museoa zabalduko dute bihar Elgoibarren

Bihar, hilak 27, zabalduko dute Elgoibarren Historiaurreko Errepliken Museoa, Artetxeko eskola izandako eraikinean. 11:00etan zabalduko dute atea, eta 13:30 bitartean, museoko pieza esanguratsuenak ikusteko aukera izango dute bisitariak. Arratsaldean ere zabalduko dute, nolatan ere, museoa, 17:00etatik 19:00etara. Historiaurreko instrumentuekin musika egingo dute zuzenean, eta ondoren, Neolito garaiko mazoak egingo dituzte. Beste egunen batean bisitatu nahi duenak e-postaz eskatu beharko du ordua, jo-sejumarquez@gmail.com helbidera idatzita.



San Bizenteren omenez, jaia



Urtero bezala, aurten ere ospatu dute San Bizente eguna Azkue-San Roke auzoan. Prozesioan atera zuten sailduaren irudia astelehenean eta meza ospatu zuten gero, 11:00etan. Ondoren, beti bezala, auzotarrek elkarte zabaldu eta salda eta txorizoa banatu zituzten gerturatu zirenen artean.

Hondakinak biltzeko sistema berria

Eskualdeko udalak eta Mankomunitatea hondakinak biltzeko sistema berria ari dira bultzatzen. Sistema horren bidez, araudiak ezartzen duen %50eko birziklapen tasa gainditu nahi dute. Horretarako edukiontzi marroiez gain grisak (errefusarentzat) ere jarriko dituzte eta hitzaldiak ere antolatu dituzte. Mendaron asteon egin dute hitzaldia eta martitzenera arteko epea jarri dute txartelak eskuratzeko. Jubilatuen ondoko lokalean eskatu behar dira txartelak. Bihar, 9:00etatik 14:00etara, eta astelehen eta martitzenean, 11:00etatik 20:00etara. Elgoibarren, hilaren 29an, izango da hitzaldia. Bi saio izango dira: 16:00etan, merkatarientzat, eta 18:00etan, herritarrentzat.

14.500 bisita inguru izan ditu jaiotza mekanikoak

Abenduaren 20an zabaldu zuten jaiotza mekanikoa eta San Anton eguna bitartean, 14.500 lagun inguruk ikusi zuten, Elgojaitza elkartekoek emandako datuen arabera. Gabon Zahar Feria egunean izan zituen bisita gehien.

Elgoibarren jasotako jostailuak Greziara bidean

Siriako errefuxiatuei babesa ematen dien Greziako LM Village errefuxiatu esparruko umeentzako materiala bidaltzeko ekimena hasi zuten Elgoibarko Gazte Asanbladak Eguberrietan, eta jasotako materiala Greziara bidean jarri dute. Bidalketa gastuetarako dirua biltzeko itsulapikoak ere jarri zituzten herrian, eta horri Gabon Zahar Feria egunean antolatu zuten erromerian batutako dirua gehitu diete. Gazte Asanbladatik eskerrak eman dizkiete herritarrei.

Mugertza krosari eta Morkaikoren 75. urtemugari eskaini diote aurtengo zigilu erakusketa Alzolatarren Dorretxeok



Berezia izan da aurtengo zigilu erakusketa. 21 lagunek aurkeztu dituzte euren bildumak eta horietako gehienak emakumezkoak izan dira. Gainera, zigiluez gain, intsigniak, fruituen etiketak, liburu markagailuak, edalontzi azpikoak, egutegiak eta loteria txartelak ere jarri dituzte ikusgai taldeko kide zen eta duela gutxi hil den Elena Cresporen omenez. Erakusketa bera, berriz, Mugertza krosari eta Morkaikoren 75. urteurrenari eskaini diote. Jose Luis Diezek jaso zuen oroigarria Mintxeta Atletismo Taldearen izenean, eta Aitzol Arriolak, Morkaikoren izenean.



Minbiziaren kontrako mosaikoa osatuko dute hilaren 5ean, Elgoibarren



Otsailaren 5ean, Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren biharamunean, mosaiko handi bat osatu nahi dute Elgoibarren, 18:30ean, Kalegoen plazan. AECC Minbiziaren Aurkako Elkarteak eta Elgoibarko Udalak antolatuta dituzte egun horretako ekintzak. Mosaikorako berdez jantzita joatea eskatu dute, eta aurrez izena ematea. Urtarrilaren 28tik otsailaren 2ra arteko epea jarri dute horretarako eta telefonoz nahiz e-posta bidez eman daiteke: 943 202 494 /bajodeba@aecc.es.

Jabetza Erregistroa lekuz aldatu dute

Jabetza Erregistroa lekuz aldatu dute Eibarren, Zezenbide kaletik Urkizura, zehatzago esateko Barakaldo kaleko 27. zenbakira. Eibar, Sorluze, Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko biztanleei eskaintzen diete zerbitzua bulego horretan. Sei lagunek taldeak dihardu lanean, eta 9:00etatik 17:00ak arteko zerbitzua ematen dute. Eskriturak erregistratzeko, Alokabiderako ziurtagiriak eskatzeko eta komunitateetako estatutuek zer dioten jakitzeko bidea errazten dute bulego horretan, besteak beste.

▶ ERNESTO VILLARINO

KLIMA ALDAKETAN DOKTOREA

Ernesto Villarino (Elgoibar, 1981) itsas-biologoa da eta klima aldaketan doktorea. Zientziari eta itsasoaren azterketari eman dio bizitzaren tarte handi bat eta gaur egun AZTIIn (Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknologia Iraskundea) ikertzaile lanetan dihardu. Planktona aztertzeke nazioarteko azterketa bat gidatu du Villarinok eta ondorioztatu dute planktonak klima aldaketan paper berezia duela. Malaspina 2010 espedizio ozeanografikoko datuak eta ondorioak garrantzitsuak izanik, beraien lana *Nature Communications* aldizkariak argitaratu du. **BARRENEN** azaldu ditu azterketa honen hainbat ondorio ere.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Planktona aztertzeke ikerketa bat egin duzue eta ateratako ondorioek garrantzia handia dute. Zer da planktona?

Organismo talde bat, tamaina eta funtzioetan anitza, txikia eta ugaria. Itsasoko ur azalean bizi da eta korroneetatik baliatzen da sakabanatzeko, horretarako gaitasun mugatua duelako. Ozeanoetako elikadura katearen oinarria da, hortik gora daude beste talde guztiak. Gai da guk arnasten dugun oxigenoaren erdia ekoizteko, baita atmosferan dagoen karbono dioxidoaren zati handi bat itsas hondoon sartzeko eta horrek klimaren erregulazioan garrantzia handia dauka. Funtzio hauek guztiak planktonaren tamainaren eta sakabanaketaren arabera moldatuta daude.

Planktona egongo ez balitz atmosferako karbono dioxidoa ez litzateke itsas hondoon pilatuko eta lurreko tenperaturak askoz ere altuagoak izango lirateke. Beraz, bizitza, gaur egun ulertzen den bezala, oso zaila litzateke. Planktona oinarria da, mahai baten hankak bezala eta



“Planktonik egon ezean tenperaturak askoz ere altuagoak izango lirateke”

hankak kenduz gero mahairik gabe geldituko ginatke. Oinarria aldatzen bada, itsas ekosistema osoan eragingo du.

Bestalde, itsaso guztien balio ekonomikoaren zati handi bat, 21 trilioi dolar urtero, ekosistema zerbitzuek ematen dituzte. Esaterako, arrantzak, gasen birziklapenak, nutrienteen zikloek edo klimaren erregulazioak, eta hemen planktona da protagonista. Horregatik da garrantzitsua

planktonaren sakabanaketan eragiten duten faktoreak ulertzea. Informazio gehiago edukiz gero ingurumen politika jasangarriagoak eraikitzea eta itsasoaren osasuna hobetzeko neurriak pentsatzea erraztu dezake.

◆ **Malaspina 2010 nazioarteko ikerketa bidaian hartu zenituzten datuak. Nola-koa izan zen?**

Espedizioa Espainiako Armadak eta

eta zientzialariek egin dute, baita Aztiko hainbatek ere. Ozeano tropikal eta subtropikal guztietan barrena laginak -bakterietatik hasita arrain txikieta arte- hartu zituzten, 133 estaziotan, mundu guztiari bira emanaz. Tamainari dagokionez oso erresoluzio ona lortu dugu, ia ekosistema txiki guztia bereizi dugulako. Laginek emandako datuak aztertuta atera dugun ondorio nagusia honakoa izan da: planktonaren tamaina zenbat eta handiagoa izan itsas komunitate ezberdinen arteko lotura txikiagoa da. Planktona nola sakabanatzen den eta globalki nola banatuta dagoen ulertuta, jakin dezakegu klima aldatetak nola eragingo duen itsas ekosistemaren funtzionamenduan. Komunitate oso anitzean, tamaina askorekin eta mundu osoan frogatu dugu eta horrelako erlazio bat naturan aurkitzea ez da erraza horregatik agertu da *Nature* aldizkarian, lanaren emaitza garrantzitsua delako.

♦ **Zuk, baina, ez duzu parte hartu itsasoko datu bilketan, ezta?**

Aurrez beste proiektu batzuetan itsasoan ibili naiz. Esaterako, *Eurobasin* proiektuan, klima aldaketaren eragina itsas harroen arteko konektibitate fisikoan aztertzen, Ipar Atlantikoan. Norvegiatik Ipar Polora arteko espedizioa izan zen nire bizitzako esperientziarik politena. *Malaspinan* ez naiz itsasoan ibili, baina

“Planktona dagoen tokian tenperatura igoz gero handik alde egingo du”

kodea erakiz datuak tratatu ditut.

Umetan, biologoa izan nahi nuen ordenagailu aurrean ez egoteko. Orain, ordea, ordu asko ematen ditut ordenagailuan lanean. Dena dela argi neukan ez nuela nahi enpresa batean egotea, kalea nuen gustuko! Ez da erraza norbere etorkizuna horrelako gaien inguruan erakitzea azterketak askotan urrutian egiten baitira. Baina gauza on asko ere baditu. Jende, erakunde, herrialde, kultura asko ezagutu ditut. Jendeak gu bezalakoak abenturazaleztat gaizka, baina abentura da ezagutzaren truke ordaintzen den prezioa. Gustukoa izan eta jakinmina izanez gero ba aurrera.

♦ **Klima aldaketan izango duen eragina ondorioztatuz duzue datu horietaz baliatuta. Herritarrongan izango du horrek eragin nabarmenik?**

Epe laburrera ez, horrelako aldaketek denbora asko behar baitute. Gure lana da gauzak nola dauden jakitea eta hori

lortu badugu ez da gutxi, lana ongi egin dugun seinale. Planktona ur korranteek lagunduta, sakabanatzen da bai janaria bilatzeko baita harrapakarietatik alde egiteko ere. Toki batetik bestera sakabanatzean bioaniztasun gradientek sortzen dira. Itsas loturari buruz gehiago jakiteak informazioa emango digu: batetik, populazio baten banaketari buruz. Bestetik, populazioen arteko fluxu genetikoa baimentzen duen prozesua denez, lagundu dezake espezieek baldintza klimatiko ezberdinetara egokitzeko dituen gaitasunak hobeto ulertzen.

Planktonaren sakabanatze-eskala zein den jakinda, aurreikusi dezakegu tenperatura igoko den toki batean planktona noraino joango den, eta itsas elikadura katearen oinarrian egonda, arrainak atzetik joango dira, baita itsasontziak ere, beraz, esfortzua handiagoa izango da eta horrek, besteak beste, ondorio ekonomikoak ere ekar ditzake.

♦ **Aldagai abiotiko eta klimatikoek baino garrantzia handiagoa du sakabanatze gaitasunak, ezta?**

Sakabanaketan zerk eragiten duen ikusteko bi deskribatzaile erabili genituen. Batetik, laginak hartzeko tokien arteko denbora, itsas korranteak kontuan hartuta. Bestalde tokien arteko klima aldagaien distantzia. Ikusi dugu, bioaniztasun konek-



EuroBasin espedizioa ozeanografikoa, Baffin Bayn, 2013ko maiatzean, Ozeano Atlantiko eta Artikoaren artean.

tibotasun patrioiak arautzen dituen deskribatzaile nagusia korranteen menpeko sakabanaketa gaitasuna dela, tokien arteko klima aldagaien distantzia baino gehiago. Beraz, badakigu zein den gakoa planktona sakabanatzeko. Ondoren, talde bakoitzaren dispersio eskala estimatu, tamainarekin konparatu eta harreman zuzena aurkitu dugu.

♦ **Sakabanaketa horrek zein garrantzi izan dezake?**

Planktonaren sakabanaketan eragiten duten faktoreak ulertzen baditugu askoz hobeto jakin dezakegu nola funtzionatzen duen ekosistemak bere osotasunean. Baina espezie zehatz bat, esaterako, Ternuan egongo dela jakiteak ez digu ezer berezirik esaten. Hala ere, hara iristeko gai bada, mugitzeko gaitasuna daukako da eta bera dagoen tokian tenperatura igoz gero handik alde egingo du. Badira beste talde batzuk, koralak-eta harroketara kateatzen direnak eta hauen dispersio eskala txikiagoa da, beraz, dauden lekura egokitu edo hil, beste aukerarik ez dute. Arrainek, berriz, mugitzeko gaitasuna dute, beraz, ez zaie axola tenperatura igotzea hotzera ihes egingo baitute. Modu horretan, itsas komunitateen erresistentzia klima aldaketarekiko espezieen sakabanatzearen edo egokitze gaitasunaren menpe egongo da, alde batetik, eta lotura mailaren arabera, bestetik.

♦ **Ikerketa honetatik atera dituzuen emaitzek balioko dute ozeanoen babeserako neurriak hartzeko?**



Planktona itsasoaren osasunaren indikatzailea da.

“Dagoen tokian tenperatura igoz gero handik alde egingo du planktonak”

Planktona ozeanoen osasunaren adierazle bat da. Gure gorputza 37 gradura dago eta tenperatura igoz gero sukarra daukagulako da. Planktona, ordea, ez da gai tenperatura erregulatzeke eta igoz gero bi aukera dauzka: genetikoki egokitu edo bere txoko-klimatikoaren bila joan ur hobeak aurkitu eta gustura egoteko, normalean Ipar Poloruntz edo beste urte sasoi batean loratuz. Horrek, komunitateen egituraren aldaketak eragiten ditu maila trofiko guztietan. Ekosistemen arteko loturan parte hartzen duten faktoreak gehiago ulertuz, gomendio hobeak eman ahal izango zaizkie erabaki hartzaileei, estrategia eramangarrien diseinuan lagunduz, itsas babes areak eraikitzeke, adididez, itsasoaren osasuna hobetzeko asmoarekin.

♦ **Norbanakoek zerbait egin genezake ozeanoen egoera hobetzeko?**

Ingurumen politika aldatu, karbono merkatua erregulatu eta karbono dioxido gutxiago igorri beharko genuke atmosferara. Horrela planktona gusturago biziko litzateke, ez lukeelako hainbeste lan egin beharko karbono dioxidoa hartu eta ur hondora bidaltzen. Norbanakoak bere eskalan ere badu eragina. Esaterako du-



Bakterioetatik hasi eta arrain txikietara arte hartu dituzte laginak.

txan zenbat eta denbora gutxiago egon karbono dioxido gutxiago igortzen da. Beraz, norberaren kontzientziaren arabera ere bada. Zientzialariok aholkuak baino ezin ditugu eman: garraio publikoa erabili, inizatiba berdeak bultzatu... Bestalde, baliabideen gehiegizko esplotazioa dago. Kaka asko botatzen da itsasora. Plastikoa asko erabiltzen dugu, itsasoan hori planktonak jasotzen du, gero arrainak jan eta guk arraina jatean plastikoa jaten dugu. Konturatzen ari gara, baina ez gara kontziente honek duen garrantziaz. Pelikularen protagonistak ere bagera, eta ez ikusle soilak.

♦ **Malaspina espedizioan jasotako datuekin egin duzue proiektua. Aurrerantzean gai honen baitan beste zerbait egingo duzue asmorik baduzue?**

Malaspina proiektu handia izan da eta erakunde askorekin aritu gara elkarlanean. Lortutako ondorioak aurrerakoiak izanik joko eman diezaguke jarraitzeko. Orain tamaina aztertutako dugu, eta itsasoko ur azalean gertatzen denaren argazkia atera. Malaspina datuetan ur azpikoak ere jasota daude, horiek aztertzea litzateke hurrengo pausoa eta horren arabera planktonaren konektibitatea ikustea. Itsas hondoko ur lasterren norabidea eta indarra ikertzea da nire asmoetako bat. Oregon edo San Diegoko unibertsitateekin elkarlanean aritzea izango litzateke aukera ona baldintzak han egokiak baitaude. Sakonera aztertuta osotasunaren ideia global bat izango genuke.



Malaspina 2010 espedizioa Hesperides itsasontzian egin zuten.

Egindako
lanaren etekina ikusi eta
harro sentitzen da bat.

María Calvo Fernández
Gasteiz. Ingeniaritza Biomedikoa, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO • URTARRILAK 27
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • OTSAILAK 3
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • URTARRILAK 27
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI • OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO • OTSAILAK 8
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA • OTSAILAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • OTSAILAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA • OTSAILAK 15
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZAROLA
JAKINARAZI





ROSA M^a PINTADO
Etxaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioileen
Lurralde Kontseilua





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Botila hutsak Atxolinera bidean: "Abenduaren 25ean, Gabon egunez, Atxolinerako ibilaldia egitera joan ginen Sallobente auzoan gora. Bidean gindoazela, zuhaitz artean, hutsik zeuden kristalezko botila multzoa (10 botila) ikusi genuen. Hara beteta eramateko ardurua izan zuena ez al zen gai izan hustu ondoren beirentzako edukiontzi batera botatzeko? Benetan penagarria da mendia itxura horrekin ikustea, denok arduratu beharko ginateke, bai".



Ikatzez betetako ontzia Kultur Etxe ondoan: "Olentzero joan zen, baita erregeak ere, baina Gabonetako opari bat utzi zuen norbaitek ahaztuta Kultur Etxearen hormetariko baten kontra: ikatza erretzeko ontzi bat, ikatzez betea gainera. Jadanik kendu badute ere, 20 egunez egon da hor traban eta arriskua eragiten egoteaz gain lurrean markak laga ditu. Ez dugu ahaztu behar umeak ibiltzen direla inguruan".



Zabor asko pilatzen da edukiontzien inguruan: "Pedro Migel Urruzuno kaleko bizilagun bat naiz eta gure etxe azpiko zabor edukiontzien inguruan hondakin gehiegi pilatzen da. Kontuan hartuta herriko erdigunean gaudela eta denda eta taberna asko dagoela, besteak beste, kaxa, poltsa zein janaria ere botatzen dute eta egun bat baino gehiago egoten da jaso gabe. Mankomunitatera deitu izan dut eta konponduko dutela esan arren kontuak berdin jarraitzen du. Noiz egingo dute zerbait arazoari irtenbidea emateko?".

Olentzero eta Mari Domingik ez zituzten Mendaron gutunak jaso: "Gabonetan, Olentzero eta Mari Domingi Mendaroko kaleetan ibili arren, gure umeek ez zuten aukerarik izan euren gutunak eskura emateko. Horren ordez udalaxe aurrean zaku bat jarri zuten haurrek gutunak han botatzeko. Azken bi urte hauetan egin dute hori eta umeak penatuta daude. Ezin al dira tarte batean umeen gutunak jasotzen beraiek egon?".

Eguberri jaietako petardoak: "Gabonetan, jai egunetan ez ezik oporretako beste egunetan ere, petardoekin 'jolasean' ibili da makina bat jende. Arriskutsua izateaz gain, zarakat jendea molestatzeaz gain, ikaratu ere egin du. Soinua ez da nolana hikoia izan, batzuk oso ozenak. Ez dakit zein den petardoak ez-tandarazteko araudia, baina uste dut edozeinek eta edozein toki zein ordutan ez lituzkeela bota behar gainontzeko herritarren trabarako izan baitaitezke".

Asteburuetan farmazien guardiak herritik kanpo: "Benetan lotsagarria da Elgoibarren lau farmazia egonda, asteburuetan, beste herri batera joan behar izatea. Gure kabuz joan gaitzkeenontzat sekulako nahastea baldin bada, zer esanik ez autorik ez dutenontzat. Lan handia al da, lau farmazia egonda, hilean behin, bakoitzak guardia bat egitea? Beste herrietan farmazia bakarra egotea ez da elgoibartarron arazoa! Jasan ezina da egoera hau, aski da!".

Elgoibarko Udalak prozesu parte-hartzaile bat jarri du martxan herritarrek sanbartolomeetako egitarauan ekarpenak egiteko

Elgoibarko Udalak prozesu parte-hartzaile bat jarriko du abian herritarrek ekarpenak egin ditzaten 2018ko San Bartolome jaietako egitarauan. Programaziorako iradokizunak eta proposamenak egin edo ideiak emateko epea otsailaren 5era artekoa izango da. Elgoibarren erroldatutako pertsona guztiek har dezakete parte prozesuan.

“Elgoibarko Udalak herritarren partaidetzaren aldeko apustua eginga du eta zaindariaren jaiak ez daude udalerrira ulertzeko modu horretatik kanpo. San Bartolome jaietako egitarauan ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dugu, herritarren gustu eta interes guztiei erantzunez”, adierazi du Ane Beitia Elgoibarko alkateak. Kultura zinegotzi Andrea Arriolaren ustez herritarrek udal politika publikoetan alderdi aktiboa eta protagonista izan behar dira. “Horregatik, legealdian zehar, mota honetako parte-hartze prozesuak jarriko ditugu martxan, elgoibartarren beharrak entzun eta ezagutzeko helburuarekin”.

Herritarrek honako bideak dituzte ekarpenak egiteko. Beti ere San Bartolome 2018 partaidetza-prozesuari buruz ari direla adieraziz:

- ◆ Aurrez aurre: Herritarrentzako Arreta Bulegoan.
- ◆ On line: Udal-webguneko galdetegia betez, edo posta elektronikoko bitartez, partaidetza@elgoibar.eus helbidean.
- ◆ Telefonoz: 943 741 050 zenbakian.
- ◆ Whatsapp bidez: 688 679 456 zenbakian.



Partaidetza tailerrak

Jaien eredia lantzeko partaidetza-tailerrak ere egingo dira. Parte hartzeko, 943 741 050 telefono-zenbakian eman daiteke izena. Biltzen den informazioa “guztiok gozatzeko jaiak” diseinatzen laguntzeko baliatuko dutela esan dute Udaletik. Tailerren egutegia honakoa da:

- ◆ Urtarrilak 26, 17:00-18:00, Ludotekan, 5-12 urtekoak.
- ◆ Urtarrilak 26, 19:30-20:30, Gaztelekuan, 13-15 urtekoak.
- ◆ Urtarrilak 31, 11:00etan, Kultur Etxean, 60 urtetik gorakoak.
- ◆ Otsailak 2, 19:00etan, Kultur Etxean, 16-25 urtekoak.

‘Zinetxiki’ ume eta gaztetxoentzako nazioarteko zinemaldiko film laburrak eskainiko dituzte domekan Herriko Antzokian



Zinetxiki zinemaldia, Elgoibarrera iritsi da. Urtarrilaren 14an hainbat emanaldi egin ondoren, urtarrilaren 28an 6 urtetik gorako haur eta gaztetxoek nazioarteko film laburrak ikusi ahal izango dituzte 16:30ean.

Zinemaldiko sail ofizialean parte hartu duten film labur esanguratsuenak emango dituzte. Sarreretarako, bestelako zine emanaldietako bideak eta prezioak mantenduko dituzte: hurrek 3,5 euro eta nagusiek 5 euro.

Balioak transmitituz

Zinema saio hauek dibertigarriak, bereziak, samurrak eta balioak transmititzen dituztenak izango direla jakinarazi dute antolatzaileek. “Modu ludikoan eta didaktikoan aurkeztutako istorio bilduma da, ikusle txikienei zuzendua”.

Domekako saiora joanez gero honako filmak ikusiko dituzte: *Sin limite*, *Captain Sandy*, *Diminuto*, *Segundito*, *La Mosca*, *Dragon Hunt* eta *Jonas and the sea*. Izenburuak gaztelaniaz eta ingelesez izan arren, film batzuk euskaraz izango dira gaztelaniazko azpitituluekin eta beste batzuek ez dute elkarriketarik izango.

Chris Brokaw kontzertua eskainiko du domekan Kultur Etxeko sotoan

Sinuose taldeak antolatuta Chris Brokaw musikariaren kontzertua izango da domekan (urtarrilak 28), 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Musikari amerikar honek post-rock eta slowcore estiloen ordezkari izan ziren Codeine eta Come taldeetan jo zuen. Ibilbide luzea egin eta desagertu arren Chris Brokawek berriro abiatu ditu lan-tzean behin zenbait kontzertu egiteko. Chris Brokaw Band abiatu zuen, Dirt music taldea eratu Chris Eckman (Wal-kabouts) and Hugo Race (Nick Cave and the Bad Seeds) taldekideekin eta Capitan Records zigilu propioa jarri zuen martxan. Filmetarako soinu bandak egin ditu, bai eta dantza-ikuski-



netarako musika ere.

laz Canaris eta The hand that wrote this letter diskoak argitaratu zituen eta aurten ambient estiloko tirada txikiko Title TK CDa plazaratuko du.

'La Rosa del Azafran' zartzuela eskainiko du Sasibill Elkarte Lirikoak

Sasibill Elkarte Lirikoaren eskutik *La Rosa del Azafrán* zartzuela izango da gaur, barixakua, 20:30ean, Herriko Antzokian. Bi orduko emanaldian Sagrario etxeoan-drea eta bere menpe lan egiten duen Juan Pedro nekazariaren arteko harremana tau-laratuko dituzte antzerki eta musika bidez. Ez dira gizartearen oztopoak saihesteko gai izango eta isiltasunean beren maitasuna sufritu beharko dute, nahiz eta patuak elkarrekin amaitzera eramango dituen. Sarrerak 15 euro balio ditu, eta 8 euro or-daindu beharko dute Gazte-xtartela dutenek.

Ikuskizun musiko-literarioa otsailaren 2an



Hamaika literak antolatuta *Linbotarren itzalak ate ostean* ikuskizun musiko-literarioa izango da otsailaren 2an, 20:30ean Herriko Antzokian. Asier Serranoren *Ate osteko itza-lak* eta *Linbotarrak* poema libu-ruetan oinarritutako emanaldian Serranok gitarra joko du, Antxon Sarasuak teklatuak eta git-rra eta Miren Fernandezek gitarra. Hiruek jarriko diete aho-tsa hitzei.

Santa Ageda eskerako deiak egin dituzte Mendaron eta Elgoibarren

Otsailaren 3an, zapatuan, egingo du Etxegina taldeak herriko kaleetan Santa Ageda eskea kopla kantari. 8:30ean izango da hitzordua San Bartolome eliza aurrean, eta gero, 14:30ean, Errosario kalean bukatu arte arituko dira. Horretarako, aurrez, entseguak egingo dituzte ur-tarrilaren 30ean eta otsailaren 1ean, 19:30ean, Kultur Etxeko sotoan.

Mendaron ere otsailak 3an egingo dute santa eskea. Antolatzaileek dei egin dute animatzen direnak 8:30ean azpian agertzeko. Elkartzen direnek hiru talde osatuko dituzte. Sahatsu mendira Mañu-korta eta Aitor Salegi bertsolariekin jo-ango dira; Mendarozabalera Beñat Lizaso eta Asier Lazarobaster *Agarre*rekin; eta Aran Erreka auzora Aitzol Urain *Bida-buru* eta Beñat Ugartetxearekin. Jasotako dirua Sendi Anaitasuna elkartearentzat izango da.

Bestalde, Elgoibarko Izarrakoak otsai-laren 4an egingo dute Santa Ageda eskea egun osoz. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 31n izango da.

Ipuinak kontatzeari buruzko ikastaroa otsailean Pello Añorgaren eskutik

Bularretik Mintzora egitasmoaren bar-ruan ipuin kontaketa munduari bu-ruzko ikastaroa antolatu dute Udal Liburutegian, *Elkar entzuteko gunea etxean sortzen: liburuak eta kontutxoak lagun* izenburupean. Ipuinak kontatzeak, guraso eta haurren artean sortzen duen magia kontuan hartu dute horretarako. Otsailaren 1ean eta 8an izango da ikastaroa Udal liburutegian 18:00etatik 20:00etara Pello Añorgaren eskutik. HH2, HH3 eta HH4ko haurren guraso-entzako da, eta aurrez izena ematea ezinbestekoa da toki mugatuak baitira.



Kilimon haraneko sekretu geologikoak ezagutu zituzten Elgoibarko umeek

Morkaiko mendi taldeak herriko ikastetxeekin elkarlanean antolatutako azken mendi irteeran ez zuten tontorrik zapaldu. Aitzitik, Kilimon bailaran barrena ibili ziren parte hartu zuten umeak eta gurasoak. Aberastasun geologiko handiko harana da Mendarokoa, eta Inma Muguerza hidrologoaren laguntzaz geologia klase praktikoa eta didaktikoa jaso zuten mendizaleek. Kilimoneko lur azpiko uren berri eman zien Muguerzak, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Debako etxeetako uraren jatorriaz, alegia. Izarraitz eta Kilimon ibaien arteko erlazioaz ere egin zien berba eta baita ere karst formazioak, lapiazak, akuiferoak eta leizeen inguruko azalpenak eman. Bazkaltzeko ordurako itzuli ziren Elgoibarrera, ibilaldi "ederra" eginda eta joan zirenean baino "jakituria handiagoarekin".

Bidasoak eta Logroñok lagunarteko partida jokatu dute Elgoibarren

Asobal Ligako bi taldek, C.B. Bidasoak eta B.M. Logroño La Riojak, lagunarteko partida jokatu dute zapatuan (urtarrilak 27), IMH kiroldegian. 19:30ean hasiko da partida eta ez dute sarre-rarik kobratuko. Sanloko arduradunek jakinarazi dutenez, hartu eman onak dituzte Errioxako taldeko arduradunekin, eta harreman on horri esker jokatu da partida Elgoibarren. Selektzioen Europako Eskubaloi Txapelketa jokatzeko ari dira egunotan Kroazian, urtarrilaren 28ra bitartean, eta txapelketa amaitu artean etenaldia izango du Asobalek. Sasoia ez galtzeko lagunarteko partida izango da.

Sanloko senior gizonetako talde nagusiak, Alcorta Forging Groupek, garaipen eroso lortu zuten Somos Eibar taldearen aurka joan den asteburuan Olaizaga kiroldegian



jokatu zuten derbian. Elgoibartarrek 26 eta 18 irabazi zuten partida. Senior emakumezkoen Lauko taldeak ere etxea jokatu zuten ligako partida, eta denboraldiko lehen porrota jaso zuten. Gol bateko aldeaz galdu zuten Oñatiko Aloña-Mendi taldearen aurkako norgehiagoka, 15 eta 16ko emaitzarekin.

Logotipo berria aukeratzeko lehiaketa jarri du martxan Morkaikok



Morkaiko Mendizale Elkartek 75 bete ditu 2018an, eta urteurrena ospatzeko, urtean zehar hainbat ekintza antolatzeko asmoa dutela iragarri dute, tartean zenbait ezusteko ere bai. Hasteko, logotipoa berritzeko lehiaketa antolatu dute.

Martxoaren 7rako bidali behar dira lanak morkaiko@morkaiko.eus helbidera. Morkaiko Mendizale Elkartea edo Morkaiko M.E. berbak agertu beharko dira logotipoan eta JPG formatuan bidali behar dira lanak. Morkaikoko zuzendaritzak izendatutako epaile talde batek aukeratu ditu lan finalistak. Gero, Morkaikoren Egunean, maiatzaren 12an, Morkaikoko bazkideek (16 urtetik gorakoek) finalera pasatu diren logotipoetatik gustukoena bozkatzeko aukera izango dute. Era berean, antolatu nahi duten erakusketa baterako materiala bilatzen dabiltza eta herritarren laguntza eskatu dute. Horretarako, elkartearekin edo-eta mendizaleekin lotura edo harremana duten bitxikeriak jaso nahi dituzte, eta herritarrei horien berri emateko eskatu diete.


Alberdi anaien gaua San Anton txapelketako finaletan

Lagunak Pilota Eskolak antolatutako XVI. San Anton pilota torneoko finalak jokatu zituzten urtarrilaren 19an Ikastolako frontoian. Jon Alberdi (Azpeitia, 1999) eta Unai Alberdi (Azpeitia, 2002) anaia azpeitiarak izan ziren protagonista nagusietakoak, seniorretako finala irabazi baitzuen lehenak eta promesetakoa gazteenak. Biak ari dira Asegarce enpresako harribiko pilotariekin entrenatzen. Promesen finalean Carregal-Artola bikotea Alberdi-Apezetxearen aurka aritu zen, eta Unai Alberdik eta Antton Apezetxeak nagusitasunez irabazi zuten finala, 22 eta 11ko emaitzarekin. Umore Ona taldeko Antton Apezetxea goizuetarra aukeratu



zuten finaleko pilotaririk onena. Senior mailako finala orekatuagoa eta estuagoa izan zen. Atxotegi-Olaizola bikoak Alberdi-Aizpururen aurka jokatu zuen eta berdintasuna izan zen nagusi markagailuan eta jokoa. Hogeinako berdinketaren ostean, azken bi tantoak Jon Alberdi azpeitiarak eta Julen Aizpurua asteasuarrak osatutako bikoak egin zi-

tuen jarraian eta eurek jantzi zituzten irabazlearen txapelak. Azpeitiko Ilunpe taldeko Jon Alberdi izendatu zuten finaleko pilotari onena. Lau urtean Lagunak Pilota Eskolako kide izan zen Aitor Atxotegi soraluzearrak gogo eta ilusio berezia zuen finala irabazteko, baina, gogotik saiatu zen arren, amore eman behar izan zuen.



Sebastian Coe IAAFeko presidentek ere badu Mugertza krosari buruzko liburua

Nazioarteko Atletismo Federazioko (IAAF) presidente Sebastian Coe ahalguztidunaren eskuetara ere ailegatu da Mugertza krosaren 75 urteko buruzko liburua: *Gazelen Hatsa*. Atletismoaren munduan izen handia du Coek. Txapeldun olinpikoa izan zen birritan 1.500 metroko proban, 1980an eta 1984an. Gainera, Nazioarteko Olinpiar Batzordeko presidente izateko hautagaietako bat da ingelesa. Zigor Diezen eskutik jaso zuen liburua, Sevillan, krosak nola hobetu eztabaidatzeko batu baitziren bertan kros antolatzaileak IAAFeko buruekin. Italicako krosean parte hartu behar zuen Lilian Rengeruk atletari zapatilla itzultzeko ere baliatu zuen bidaia Diezek, Mintxetako lokatzetan galdu baitzuen atleta kenyarrak. Bestetik, Mugertza krosari buruzko laugarren argazki lehiaketa martxan dagoela jakinarazi dute Mintxetakoek. Otsailaren 16rako entregatu behar dira lanak honako helbidean: Mintxeta Atletismo Taldea. 20 Posta kutxatila. 20870 Elgoibar.

La Union elkartearen ezhoiko batzarra

La Union ehiza eta arrantza elkarteak ezhoiko batzarrera deitu ditu bazkideak otsailaren 1erako. 20:30ean izango da lehen deialdia eta 21:00etan bigarrena. Besteak beste, honako gaiak sartu dituzte gai zerrendan: arautegi berriaren proposamena, batzarrean parte-hartze aukera (hitza izatea), batzarra asteburuan egiteko aukera aztertzea, erretzea baimentzea ala galeraztea birplantzeaztea, e.a.

LANA.....
Eskaerak-

Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Aste barruan arratsaldeetan eta asteburuetan egun osoz, gaueetan ere, nahi izanez gero. ☎ 652 718 719

Pertsona helduak zein umeak zaintzeko prest, interna moduan ere. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. ☎ 631 343 232

Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 662 041 526

Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 632 952 947

Neska prest umeak zaintzeko. Malgutasun osoa ordutegietan. ☎ 632 392 251

Zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia. ☎ 655 094 780 (Silvia)

Pertsona helduak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. ☎ 631 620 344

Asteburuetan pertsona helduak zaintzeko prest nago. Erreferentziak dauzkat. ☎ 648 039 187

Pertsona helduak zaintzeko prest. Interna aritzeko gertu. ☎ 615 580 970

Garbiketa lanetarako eta adineko pertsonak zaintzeko prest. Orduka aritzeko gertu. ☎ 603 237 932

Garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta orduka aritzeko prestutasuna. ☎ 629 872 270

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Gauzez eta interna aritzeko prestutasuna. ☎ 688 738 823

Adineko pertsonak zainduz egingo nuke lan. ☎ 622 554 873

Adineko pertsonak zaintzeko prest. ☎ 633 563 546

Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka, gauzez edo ospitaletan egoteko prestutasuna dut. ☎ 602 490 595

Pertsona helduak zaintzeko prest. Edozein ordutegirekin. ☎ 632 729 261

Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Goizez. ☎ 687 114 707

Umeak edo nagusiak zainduz edo garbiketan lan egiteko prest. Goizez, arratsaldez zein orduka. ☎ 675 965 130

Pertsona helduak eta umeak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. Ikasketak eta esperientzia. ☎ 671 989 434

Pertsona helduak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna moduan ere. Esperientziarekin. ☎ 689 571 882

Dendetako saltzaile, bulego edo etxe garbitzaile zein ume edo adinekoen zaintzaile lanetan aritzeko prest nago. ☎ 629 903 512

Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ 685 263 228

Pertsona helduak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 638 338 816

Esperientzia eta erreferentziadun neska lanerako prest. Adinekoak zaintzen eta garbiketan. ☎ 688 712 075

Pertsona helduak zaintzeko edota kalera atera eta paseatzen laguntzeko prest. ☎ 699 535 728

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzaile, sukalde laguntzaile edota garbitzaile aritzeko prest. ☎ 602 047 812

Nagusien zaintzaile, garbitzaile edo ile-apaintzaile lan egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ 632 839 617

Garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 651 479 142

Edozein motako lanean hasteko prest. ☎ 632 918 379

Edozein motako lanean hasteko prest. ☎ 631 381 772

Pertsona helduak zein umeak zaintzeko, portalak, tabernak... garbitzeko eta sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. ☎ 642 249 818

ETXEBIZITZAK.....

Trastelekua duen etxebizitza alokairuan hartuko nuke Elgoibarren. ☎ 602 490 595

Elgoibarko erdigunean etxebizitza alokagai. 3 gela, sukalde-jangela eta komuna. 3. pisua igogailurik gabe. 550 euro hilero. Hilabete bateko fidantza. Interesatuak deitu. ☎ 688 650 060 (Laura)

Etxebizitza alokagai Errosario kalean. Ganbara erakoa eta logela batekoa. ☎ 626 175 959

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokagai ikastola ondoan. ☎ 943 531 648

BESTELAKOAK.....

Orain dela pare bat hilabete, familia argazki zahar bat topatu nuen Maala tabernan. Galdu duenak estimu handian izango duela pentsatzen dut eta gordeta daukat etxean. Berreskuratu nahi duenak deitu. ☎ 647 134 925



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios
Euzkoaldea Berdeko Administrazioaren Erakunde Ekonomikoa

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gas-hornitzailea dugun enpresak jakinarazi digu gas-kontagailuetara iristeko plataforma bat jarri beharko genukeela, segurtasun arazoak tarteko. Gaur egun, kontagailu horiek patio batean daude, eta portaletik sartzen da hara, baina patio horretako zorua lokal baten teilatua da. Lokal-jabe horrek ez du uzten bere teilatu horretan fatxadari lotutako inongo plataformarik jartzen. Jakin nahiko nuke lokal jabe horrek eskubiderik duen uko egiteko, jakinda instalazio hori gabe ezingo direla kontagailuak irakurri.

Teilatu gainean plataforma bat jartzea ez da uko egiteko arazoa, plataforma hori fatxadari lotuta egonda, eta nire iritziz, fatxadari lotuta egon ezta ere ez luke uko egiteko arazoi izan beharko, teilatu-zoru hori elementu komuna delako. Gainera, ekoizkerari eragiten dion elementua izanda ezingo lioke komunitateari kalte-ordainik eskatu.

Legez, etxe-jabe guztiak behartuta daude euren etxe eta lokaletan eraikinak eskatzen dituen obra eta bestelakoak egiteko baimena ematera. Eskubidea hori bai, obra horiek sortzen dizkieten kalteen ordaina eskatzeko komunitateari.

Aholkua: Egin nahi duten hori elementu komun batean egin beharreko ezinbesteko obra izan ala ez, komunitate horrek legez ezarritako baldintza bat bete behar badu, jabeak hori derrigorputa dago baimena ematera.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Oskar**, ostegunean 50 urte, txapeldun. Segi horrela. Muxu handi bat. Haritz, Ane eta partzelako lagunak.



Zorionak, **Garazi** gaur 7 urte bete dituzulako. Ahizpa Maddi eta etxeko guztien partez.



Zorionak, **Iskan-der**, urtarrilaren 30ean 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako eta lagunen partetik.



Zorionak, **Laia**, maitia! 7 urte handi! Muxu potolo bat etxeko guztien eta bereziki Enekoren partetik.



Zorionak, **Ian!** Astelehenean, 7 urte handi. Muxu erraldoi bat familiako eta partetik. Primeran ospatu eguna!



Zorionak **Oihan** atzo urte bat bete zenuelako. Etxeko partez muxu handi bat.



Zorionak, **Sara**, 9. urtebetetzean. Segi baloiari gogor ematen eta beti bezain alai. Mila kilo muxu, etxeko partez.



Zorionak, **Mar-ke!** Asteartean 9 urte beteko dituzu. Ondo pasa familiako, eta, batez ere Nora, Roke eta Lukaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENe astekarian edo
www.barren.eus webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

943 744 112



Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

Orange Mosaic
Red Devil
Oregon Eyes
Blood Shot
Blackout
Sky Blue

19€ (bi lentila probak barne)

Inauterietarako fantasiako eta koloretako lentillak

26 BARIKAKUA

20:00 Elgoibarko isiltasun eskolaren topaketak. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi aretoan.

20:30 Zartzuela. *La Rosa del Azafrán*. Sasibill elkarte lirikoa. Herriko Antzokian.

27 ZAPATUA

11:00 Erakusketa. Historiaurreko erreplikak. Inaugurazioa. Fossil eta Mineralen Museoa (Artetxe kalea).

28 DOMEKA

19:00 Kontzertua: Chris Brokaw. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinuose.

29 ASTELEHENA

16:00 eta **18:00** Hondakinen bilketa sistema berriari buruzko informazio bilera. Lehen saioa merkatariarentzako; bigarrena herritarrentzako saio irekia

30 MARTITZENA

18:00-20:00 Literatura: Teresa (Rosa Chacel). Dinamizatzailea: Consuelo Carrere. Gotzon Garate Udal Liburutegian. Antolatzailea: Haizea.

19:30 Etxegina taldearen Santa Ageda eskeko entsegua. Kultur Etxeko sotoan.

1 EGUENA

18:00 Gurasoen formakuntza: Gazte lokalak Elgoibarren. Hizlaria: Mikel Etxaniz, Udal Gazteria Saileko teknikaria. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzaileak: Elgoibarko ikastetxeetako guraso elkarteak, Udal Ongizate Saila eta Gazteria Saila.

18:00-20:00 Ikastaroa: *Android gailua erabiltzen ikasi*. 14 ordu. Gaztelaniaz. Otsailaren 9ra arte. KZgunean.

18:00-20:00 Ikastaroa: *Elkar entzuteko gunea etxean sortzen: Liburuak eta Kontutxoak lagun*. Hizlaria: Peio Añorga. Udal Liburutegian

19:30 Etxegina taldearen Santa Ageda eskeko entsegua. Kultur Etxeko sotoan.

2 BARIKAKUA

15:15 Santa Agedako kalejira. Ikastolako haurrak kantari kalez kale (euria eginez gero, Ikastolan).

19:00 Liburu aurkezpena. Gazelen hatsa (Eduardo Arrillaga). Kultur Etxeko hitzaldi gelan. otsailaren 2tik 24ra argazki erakusketa. Astelehenetik zapatara 18:30-20:30. Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Juan Mugerza 75 urte.

20:30 Kontzertua: Linbotarren itzalak ate ostean ikuskizun musiko-literarioa: Asier Serrano, Antxon Sarasua eta Miren Fernandez. Antolatzailea: Hamaika litera. Doan. Herriko Antzokian.

20:30 Idi-dema. Oriden (Orio)-Bikandi (Berriatua). Sigmako probalekuan.



II. URTEURRENA

Garbiñe del Hoyo Murua

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 27, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.**

Zure familia



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
26 BARIKAKUA	27 ZAPATUA	28 DOMEKA	29 ASTELEHENA	30 MARTITZENA	31 EGUAZTENA	1 EGUENA	2 BARIKAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Etxeberria	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)

'Wonder Whell'
27 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
28 domeka: 19:00
29 astelehena: 21:30



'Zinetxiki zinemaldia'
(6 urtetik gorako umeentzako film laburrak)
28 domeka: 16:30



'4 días de mayo'
(Ongarri zinekluba)
1 eguena: 21:30





Damiana Garate Olañeta

2018ko urtarrilaren 7an hil zen, 99 urte zituela.
Haren oroimenez domekan, urtarrilaren 28an, meza izango da,
12:30ean Idotorbeko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Angel Arrieta Garate

2018ko urtarrilaren 21ean hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



agun bati erakutsi diot argazkia. Galdetu diot: *zer iradokitzen dizu?* Erantzun dit: *argazkiyan zati nagusiyak, ertzak, kenduz geo, gorputz barruko organoen erretrato bat dirudi.* Itsasoak hondarrera eramandako enborra bizitzak gogor kolpatutako gorputza izango litzateke haren ustez, minez dagoen gorputz bat. Beste lagun batek hauxe esan dit: *argazki horretan itsasoa da protagonista. Kendu eta eman egiten digu.* Azken hilabeteotako itsasaldi zakarrek irentsi dituzten pertsonak zeuzkan agian gogoan, eta gizakiaren utzikeria ere bai: ausart itsasoari iseka egiten, argazki baten truke. Edo gizakiaren handinahia: horma eta hesiekin itsasoaren indarra leundu nahirik beti. Groenlandian egon berri den lagun batek hauxe esan dit argazkia ikustean: *Inuitek kayakak*

oin dala 4000 urte foka azalagaz ta egurragaz iten izin dauriez. Baie ez dekie zuhaitzik! Itsasoak ekarritako enborretatik iten izin dauriez! Izugarri gustatu zait bizkainoaren ekarpena. Ederra izango da Groenlandia ere. Ahizpari ere bidali diot argazkia: *enborraren kolore gorrixkak sua dirudi.* Itsasoak ekarritako enbor hori itsasoan bizia galtzen duten etorkinak, joankinak dira niretzat. Nafar lagun bihotzeko baten iritzia ere jaso dut: *naturan indarrak mugik ez tu. Bere ekilibriyu arkitzen du, gizakion lege ta moral guztiyen gañetik. Gizakion beharrik ez tu!* Beste lagun nafar bati ere galdetu diot: *Rollo ezkorra. Hodeiak eta harea ikusten dira mugituak olatuengatik. Gaixo dago, eta enborrik ere ez du ikusi.* Bataren eta bestearen hitzak irakurtzen ari naizela, pentsatu dut ederra dela lagunak izatea. Haiek botatako ideia bat aukeratu nahi nuen testu hau idazteko, baina ederra iruditu zait denak ekartzea hona. Zeinek bere errealitatetik tartetxoa egin dutelako niri laguntzeko. Badut beste lagun bat, itsaso kontuetan aditua. Hauxe esan dit: *hizkuntza asko daude munduan, baina irribarrea unibertsa da.* Niri neroni argazkiak zer esaten didan pentsatzen ari naiz, baina kosta egiten zait azaltzea. Itsasokoa baino gehiago, mendikoa naizelako izango da agian. Hurrengo klik-ean saiatuko naiz berriro.

“Pentsatu dut ederra dela lagunak izatea”

MATRIKULAZIO EPEA: URTARRILAREN 29 TIK - OTSAILAREN 9 RA.
ATE IREKI EGUNA: OTSAILAK 3



elgoibarko
herri eskola

harremanak ehunduz



IKASTOLA EREDUA

www.elgoibarikastola.eus

HEZKUNTZA ERALDATZEN



Aurkezpen
bilera
urtarrilaren
29an
18:00etan

Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra

elgoibar@elgoibarikastola.eus
943 74 44 41

elgoibar ikastola

